

Balorezko proposamena:

HOLOGRAMA:

Duela pare bat hilabete, beherapenak zirela eta, Bilbora jaitsi ginen zerbait erosteko asmotan. Egun hartan, eguraldi txarra zegoen eta kriston hotza geneukan, beraz, ez joatekotan egon ginen. Arropa erosteko, Inditex talde textileko dendetan sartu ginen. Arropa probatzera gindoala, arazo batzuk aurkitu genituen: batzuetan beharrezkoa genuen neurri handiago edo txikiago bat (denda desberdinetako neurriak oso desberdinak direlako), eta gainera, momentu hartan ez ziren denda fisikoan aurkitzen; arropa behin eta berriro probatzeak guztiz naskatu egiten ginduen (arropa jarri eta kendu); probadoreetan egondako ilara oso luzea izaten etab. Ondorioz arropa erosi gabe irten ginen dendatik, momentu horretatik aurrera ideia bat bururatu zitzaigun. Eta ideia hau garatu genuen: HOLOGRAMA.

Baina proiektua garatzerakotan konturatu ginen ideia moldatu eta sakabanatu genezakeela, hau da, holograma antzeko bat dendetan muntatzetik aparte, aplikazio bat sortu genezakeela norberaren etxe bertatik erosteko. Modu horretan, bi plataforma horiek izanda, gizarte talde handiago bat hartuko genuke.

Hologramaren bitartez pertsonak arropa probatu ahalko dute ispilu bati begira eta jakin haientzako aproposa den ala ez. Dendetako aldageletan, tablet antzeko bat kokatuko dugu han arropa aukeratzeko, eta zuzenean aukeratutakoarekin ikusiko zara ispilu moduko batean. Bestalde, aplikazioaren bitartez, etxeetan gauza bera egin dezakete, mugikorrari edo tabletari begira, probatu ahalko dituzte inora joan gabe. Mugikorraren kamarak zure irudia hartu egingo du eta honen pantailan aukeratutako arroparekin agertuko zara.(Snapchat bezala baina aurpegiak izan ordez, arroparekin) Beraz, gure bezeroak arropa denda-enpresak eta pertsona arruntak izango dira.

Gure produktuak ez dauka konpetentziarik, hortik, gure produktua berria da, beraz jendearen atenzioa harrapatuko du. Teknologia berriei egokituta dago eta ondorioz enpresa iraunkorra eta desberdina izango litzateke. Horrez gain, gaur egungo gizarteari ondo moldatuko litzateke.